

• **ZEIN DIRA BEHAR DITUZUEN BAZKIDE ETA HORNITZAILE NAGUSIAK ZUEN PROIEKTUAK FUNTZIONA DEZAN?** Gure proiektua aurrera eramateko, bazkide eta hornitzaile nagusiak desgaitasun fisiko eta/edo mentala duten haurrak eta helduak dira, haiek baitira proiektuaren ardatz nagusia. Horrez gain, ezinbestekoa da familien, desgaitasunen arloan lan egiten duten elkarleen, hezkuntza-zentroen, zentro terapeutikoen, profesional soziosanitarioen eta erakunde publiko zein pribatuen laguntza eta lankidetzaz izatea. Eragile horiek guztiek parte-hartzaileak, ezagutza espezializatua eta etengabeko babesa eskaintzen dute, proiektua modu egokian eta iraunkorrean garatzeko.

• **ZERGATIK DIRA GARRANTZITSUAK GURETZAKO?** Garrantzitsuak dira, gure enpresaren oinarria eta izateko arrazoia direlako. Desgaitasuna duten pertsonak izango dira gure proiektuan modu aktiboan parte hartuko dutenak, beren gaitasunak, esperientziak eta inplikazioa eskainiz. Gure helburua da espazio inklusibo, seguru eta egokitua sortzea, non garapen pertsonala, soziala eta, kasu batzuetan, lan-arloari lotutako garapena sustatuko diren. Haien parte-hartzeari esker, aukera-berdintasuna, inklusioa eta gizarte-justizia bezalako balioak bultzatzen ditugu.